

NI, NEU NAIZ

HELBURUAK

- Talde batentzat dibertsitateak duen balioa ulertzea eta baita batasuna eraikitzeke ezaugarri komunak aurkitzeko premia ere.
- Estereotipoak identifikatzea pertsonak benetan ezagutzeko eragozpide bat bezala, norberak duen identitaterako eskubidea kentzean.

BEHARREZKO MATERIALAK

- Bideoa: *Ni, neu naiz*, hemen eskuragarri: www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/ni-neu-naiz-bigarren-hezkuntzarako-jarduera
- Papera edo ohar-paper itsaskorak eta idazteko materiala.
- Paperak eransteko eta ikusgai jartzeko gainazal bat.
- Ordenagailua eta inprimagailua.

LAGUNTZA-MATERIALA

- Eskubideetarako eta herritartasun globalerako hezkuntzako jardueren eta baliabideen gida edozein indarkeria modutik aske egoteko haurrek duten eskubideari buruz, hemen eskuragarri: www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/eskolan-salbu-ikasturteko-gida

Nerabezaroan garrantzi handiko ikasbidea da jabetzea indarkeria ez dagoela beti ikusgai, estalita egon baitaiteke gure usadio eta ohituretan. Horrela bakarrik aurka egin ahal izango diegu ezkutuko indarkeria moduei (pobrezia, askatasun gabezia, tribalismoa, xenofobia edo sexismoa, besteren artean). Estereotipoek, aurreiritziek eta diskriminazioak aukerak sor ditzakete estalita dauden indarkeria modu horiek agerikoak izateko, genero-indarkeria, pandilen arteko borroka, bullying edo ziber-eraso moduan. Egin diezaiogun aurre arazoaren sorburuari: Erantzi mozorroak!

Jarduera prestatzea


Ni, neu naiz bideoa proiektatuko dugu ikasgelan, besteak gure estereotipoekin eta aurreiritziekin, eta ez haien benetako balio edo akatsekin, identifikatzen ditugun moduari buruzkoa. Bideoak hainbat gai eztabaidatzera eraman gaitzake (joerak, ikusmoldeak, talde-pentsamendua, moda, diskriminazioa...). Galdera batzuk baliagarriak izan daitezke elkarriketa bideratzeko:

- Zer esan nahi digu bideoak? Zein da bere mezu nagusia?
- Zer da zuretzat mozorro bat? Badira geure buruari jartzen dizkiogun mozorroak eta besteek jartzen dizkigutenak?
- Errazagoa edo zailagoa da mozorrorik gabe bizitzea? Zerk eragozten digu mozorrorik gabe bizitzea?
- Bururatzen al zaizkigu bideo honetarako beste pertsonaia batzuk? Zeintzuk izan daitezke mozorroen beste adibide batzuk gure ingurunean?
- Badakizu zer den estereotipo bat? Zertan bereizten da aurreiritzi batetik? Laguntzen digute errealitatea ulertzen edo estalita erakusten digute?
- Zer irabazten dugu edozein pertsonarekin oztoporik gabe harremana izateko aukera dugunean?

#EndViolence

Elkartu zaitez UNICEFen munduko kanpainara indarkeriari azkena emateko. Ospatu ezazu Haurren Eguna zure ikastetxean, bakearen eta tratu onaren aldeko txerto batekin. Jakin ezazu nola egin hemen: www.unicef.es/eus/educa/tratuona





BEROOUND

Ondoren, jarduera txiki bat proposatu daiteke ikasgelan gure ikaskideak benetan ezagutu ahal izateko:

- Eman parte-hartzaile bakoitzari ikasgelako zerrenda bat, izen bakoitzaren ondoan zuriune bat utzita.
- Eskatu parte-hartzaile bakoitzari izen bakoitzaren ondoan esaldi bat edo hitz bat idazteko, pertsona hori deskribatuko duena. Adierazpenak konstruktiboa eta positiboa izan behar du, eta ez du fisikoari buruzkoa izan behar.
- Hartu zerrendak eta bildu zerrenda bereizietan parte-hartzaile bakoitzak jaso dituen iruzkinak. Beharrezkoa izanez gero, birlandu iruzkinak ordenagailuan, positiboak ez direnak ezabatzeko, eta haiek inprimatu eta parte-hartzaileen anonimatua babestu ahal izateko. Kopia pertsonal bat egin dezakezu parte-hartzaile bakoitzak deskribapenen bere zerrenda gorde dezan.
- Jarri zerrendak ikasgelan, ondo ikusteko moduko leku batean, eta hartu tarte bat horiei buruzko hausnarketa bat egiteko, arreta berezia jarritz desberdintasunek taldeari balioa eranstean dioten moduan.
- Hona hemen lagungarriak izan daitezkeen galdera batzuk (irekiak edo hausnarketa pertsonal bat egiteko):

- Zaila izan zen gainerakoei buruz gauza onak pentsatzea eta idaztea? Zergatik?
- Zailagoa izan da ondo ezagutzen ez duzun jendeari buruz zerbait idaztea? Nola konpondu zenezake hori?
- Nola sentitzen zara besteek zuzen ikusten dituzten balioen zerrenda bat irakurtzean? Asmatu al dute? Bat al dator zure buruaz pentsatzen duzunarekin?
- Zertan dute antza eta zertan dira desberdinak pertsona bakoitzaren zerrendak?
- Zer gustatzen zaigu gehiago, beste pertsona batzuek haien berdinak ikusten gaituztenean edo desberdinak ikusten gaituztenean?
- Zer neurritan onartzen ditugu gainerakoak bezalakoak ez direnak? Zer neurritan uzten digu inguruneak desberdinak izaten?
- Zer gertatzen da gure ingurunean gehiengoak egokitzen jotzen duen horretan "moldatu" ezin dugunean? Zure ustez nortzuk ez dira zure "moldekoak"? Zertan bereizten dira zugandik (fisikoa, gustuak, ideiak, jarrerak, balioak...)?
- Justifikatzen al dugu gugandik "desberdinak" diren horienganako indarkeria?
- Gizartean gertatzen diren indarkeria moduetatik zeintzuek dute sorburua "desberdina" izatearen gaitzespenean? (adibidez: arrazismoa, genero-indarkeria, homofobia, pertsona desgaituen edo zaharren aurkako indarkeria...)
- Nola prebenitu ditzakegu indarkeria modu horiek?